

B
Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea



azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

PROGRAMA
EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2021



Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Jar zaituz harremanetan

Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artea: programacioncultural@azkunazentroa.eus

Deialdiak: deialdiak@azkunazentroa.eus

Erabiltzaileentzako arreta: info@azkunazentroa.eus

944 014 014

PLAZA ARIKIBAR, 4
48010 BILBAO



HEZKUNTZA PROGRAMA

Josune Urrutia

Onko

Sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu programako Josune Urrutia artista egoiliarak hainbat ekintza proposatzen ditu hiruhileko honetarako, *Onko* proiektuaren barruan garatzeko.

Arte- eta osasun-gaiei buruzko pentsamendu, hausnarketa eta sorkuntzarako zeharkako gunea da *Onko*. Gaixotasunak dituzten pertsonak, osasun- eta kultura-arloko erabiltzaileak eta profesionalak, eta gai horiekiko interesa duten pertsonak biltzen ditu.

Ildo horretan, artistak planteatzen duen lehen ekintza da gogoeta egitea eta narratiba berriak sortzea gaixotasunarekiko esperientzia pertsonalari eta kolektiboari buruz. Horretarako, Guruzetako ospitaleko osasun-profesionalekin batera, gailu metodologiko bat diseinatu eta prestatuko du, edozein pertsonak ekintzan parte har dezan.

Hurrengo ekintzan, elkarketa bat izango da gaixo dauden pertsonekin, eta aurrez planteatutako kit metodologikoa praktikan jartzea proposatzen da. Gainera, argitalpen bat sortuko da gertatutakoaren laburpen gisa, eta tailerren emaitzekin batera diseinatutako kit-a sartuko da bertan.

Proiektuaren amaieran, topaketa ireki bat egingo da argitalpena aurkezteko, eta lan-prozesua eta proiektuan lortutako ikaskuntzak partekatzeko.

////////////////////////////////////

Gaixotasunak dituzten adin guztietako pertsonen eta haien senideei zuzendutako jarduerak

////////////////////////////////////

 josuneurrutia.com

Argazkia: Alejandro Nafía



JOSUNE URRUTIA Artista, ilustratzaile eta marrazkilaria gisa, interes berezia du komunikaziorako eta sozializaziorako funtsezko baliabide gisa marrazketa behar duten prozesuetan eta tresnetan, hala nola Graphic recording-ean, osasun-munduko medikuntza grafikoan eta marrazketa kolektiboko prozesuetan.